# HERRITARREN PARTAIDETZARAKO ERAKUNDE ARTEKO ESPAZIOA

2024 buletinak

GIPUZKOA
Ekin. Zaindu. Bizi.

*2024 apirila*



Gipuzkoako Foru Aldundia
ETORKIZUNA ORAIN

HERRITARREN PARTAIDETZARAKO
ERAKUNDE ARTEKO ESPAZIOA

2024ko apirila

BERRIAK

Indartsu abiatu dugu urtea. 2024ko Erakunde Arteko Espazioaren lehenengo lau hilekoan 2023-2027 planifikazio estrategikoa oinarrian hartuz, 2024rako jarduera-plana landu eta onartzeko Bilgune Teknikoa eta Plenarioa egin ditugu.

**Bilgune Teknikoa**

Otsailaren 15ean egin genuen Bilgune Teknikoan herri handi eta ertainetako 13 teknikarik eta herri txikietako alkate batek parte hartu zuten. Bertan, 2024rako jarduera plana lantzen buru-belarri aritzeaz gain, talde giro aparta sortu izana azpimarratu nahi dugu.

Akta hemen duzue eskura.

**Plenarioa**

Martxoaren 15eko Plenariak hiru zati izan zituen. Hasteko, Erakunde arteko Espazioaren kokapen bat egin genuen, azken urtetan modu aktiboan parte hartzen duten bi kideren ahotik: zer den, zergatik edo zertarako den, antolaketa eta ze ekarpen egiten dien. Jarraian, 2024ko jarduera plana aurkeztu eta onartu genuen, eta bertaratuek plangintzarekiko interes-maila jasotzeko dinamikarekin osatu genuen. Eta azkenik, "Herritarrekin gobernantza eta lankidetza inklusiboagoak" ikerketaren ondorioen aurkezpena izan genuen Aztiker Koop.-en eskutik.

13 ordezkari politiko eta 7 teknikarik parte hartu zuten saioan.

Akta hemen duzue eskura.

*2024 uztaila*



Gipuzkoako Foru Aldundia
ETORKIZUNA ORAIN

HERRITARREN PARTAIDETZARAKO
ERAKUNDE ARTEKO ESPAZIOA

2024ko uztaila

**Lidergo partekatuen inguruko jardunaldia**

Azaroaren 14an lidergo partekatuaz hitz egiteko topaketa bat egingo dugu. Zehazki, lidergoari begira jarriko gara rol desberdinetatik eta haien arteko harreman eta elkarlanetik: lidergo politikoa, lidergo teknikoa eta lidergo herritarraz arituko gara.

Datozen hilabeteetan joango gara egitarauaren berri gehiago ematen baina, momentuz, gorde data: **2024ko azaroaren 14a!**

BERRIAK

**Nola erraztu ekintza komunitarioa herri/hiri antolamendutik eta espazio eta ekipamendu publikoen diseinutik?**

TopaGune ikastaroa: Nola erraztu ekintza komunitarioa herri/hiri antolamendutik eta espazio eta ekipamendu publikoen diseinutik?

*2024 azaroa*



GIPUZKOA
Ekin. Zaindu. Bizi.

HERRITARREN PARTAIDETZARAKO
ERAKUNDE ARTEKO ESPAZIOA

2024ko azaroa

BADATOR!

JARDUNALDIA, AZAROAREN 21EAN

Gaia honakoa izango da: **partaidetza eta ekintza komunitarioan oinarritutako politika publikoak egiteko beharrezkoa dugun lidergoa (lidergo politikoa, teknikoa zein herritarrena).** Zehazki, lidergo partekatuaren ideian jarriko dugu fokua, hitzaldi eta gogoeta desberdinen bidez.
Programaren informazio xehetua eta izena emateko aukera HEMEN.

Aforoa mugatua izango da, ez utzi azkenengo momenturako!!